7186

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 11koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, auto-taxietako bidaiarien hiri-garraioaren zerbitzu publikoa emateko, 2009ko ekitaldirako tarifak onartzen dituena (Oarsoaldeko eskualdean barne hartutako Lezoko, Oiartzungo eta Errenteriako Udalak).

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2008ko abenduaren 11n egindako bileran, hartu zuen erabakia argitaratzen da ondoren, guztiek jakin dezaten.

ERABAKIA

Hiri-garraioaren eremuaren barruan, Udalei dagokie tarifak prezioen kontrolari buruzko legerian xedatutakoari jarraiki finkatzea tarifak, bidaiarien automobil bidezko hiri-barruko eta hiriarteko garraio publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 3. artikuluko hirugarren idatz-zatian xedatu bezala.

Bidaiarien auto-taxi bidezko hiri-barruko garraioaren prezioak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1993ko otsailaren 26ko Aginduaren hirugarren eranskinean eta ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren 16. artikuluko laugarren paragrafoan ezarritakoari jarraiki, prezioen kontrolari buruzko araudiari lotuta daude, Autonomia Erkidegoaren eremuko «prezio baimenduen» modalitatean hain zuzen ere.

Euskadiko Prezioen Batzordeak eskumen hori abuztuaren 30eko 230/1988 Dekretuaren (irailaren 20ko EHAA, 175. zenbakia) eta 1988ko irailaren 21eko Aginduaren (urriaren 4ko EHAA, 185. zenbakia) indarrez darabil. Organo horri dagokio eskatutako tarifak lotuta daudeneko prezioen araudi orokorrari (zeinari lotuta baitaude) egokituta dauden erabakitzea, prezioen politikarako neurriei buruzko urriaren 28ko 2695/1997 Errege Dekretuari eta hori garatzeko xedapenei jarraituz.

Urriaren 15eko 243/2000 Dekretuak onartutako bidaiarien automobil bidezko hiri-barruko eta hiriarteko garraio publikoari buruzko Legearen araudiak, bere 64. artikuluan, baterako prestazioko lurralde-eremuak hartzen ditu kontuan. Lurralde-eremu horiek Foru Aldundiek ofizioz edo eremuak hartzen dituen Udalek eskatuta finkatzen dituztenak izango dira.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Taxi Batzordea sortzeari buruzko apirilaren 27ko 37/2004 Foru Dekretuak, bere 2. artikuluaren («Eskumenak») c) idatz zatian, baterako prestazioko lurralde-eremuen eta erregimen bereziko zonen sorkuntza ezartzen du.

Eskualde-eremuko zerbitzuak eskainiko dituen taxi-zerbitzuen erregimen bereziko zona horiek sortzearen

7186

RESOLUCIÓN de 11 de diciembre de 2008, de la Comisión de Precios de Euskadi, por la que se aprueban las tarifas para el servicio público de transporte urbano de viajeros en auto-taxi para el ejercicio 2009, correspondientes a los Ayuntamientos de Lezo, Oiartzun y Errenteria, integrados en la Comarca de Oarsoaldea.

La Comisión de Precios de Euskadi, en su reunión del día 11 de diciembre de 2008, adoptó el Acuerdo que se transcribe a continuación para general conocimiento.

ACUERDO

Corresponde a los Ayuntamientos, dentro del ámbito del transporte urbano, la fijación de las tarifas con sujeción a los dispuesto en la legislación sobre control de precios, tal y como se establece en el artículo 3, apartado tercero de la Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo.

Los precios de transporte urbano de viajeros en autotaxi están sujetos a la normativa de control de precios en la modalidad de «precios autorizados» de ámbito autonómico, a tenor de lo establecido en el anexo tercero de la Orden del Ministerio de Economía y Hacienda de 26 de febrero de 1993, y el párrafo cuarto del artículo 16 del Real Decreto-Ley 7/1996, de 7 de junio.

La Comisión de Precios de Euskadi ejerce dicha competencia en virtud del Decreto 230/1988, de 30 de agosto (BOPV n.º 175, de 20 de septiembre), y de la Orden de 21 de septiembre de 1988 (BOPV n.º 185, de 4 de octubre), correspondiendo a este órgano enjuiciar si las tarifas solicitadas se adecuan a la normativa general de precios a que están sujetas, conforme al Real Decreto 2695/1977, de 28 de octubre, sobre medidas relativas a política de precios y sus disposiciones de desarrollo.

El Reglamento de la Ley de de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo, aprobado por el Decreto 243/2000, de 15 de octubre, en su artículo 64 contempla las áreas territoriales de prestación conjunta, que serán las que así se determinen por las respectivas Diputaciones Forales, bien de oficio, bien a instancia de los Ayuntamientos a que el área se refiere.

El Decreto Foral 37/2004, de 27 de abril, sobre la creación de la Comisión del Taxi del Territorio Histórico de Gipuzkoa, establece en su artículo 2 «Competencias», en el apartado c) la creación de áreas territoriales de prestación conjunta y zonas de régimen especial.

En la creación de estas zonas de régimen especial de servicios de taxi, por la que se prestarán servicios en el

bidez, eskaintzaren eta eskariaren arteko eskualde-oreka bilatzen da. Funtsean, sektorearen garapena eta sustapena bilatzen da (lizentzia kopurua, zerbitzuaren antolamendua, tarifen bateratzea eta aplikazio-irizpideak), erabiltzaileari zerbitzu hobea eskainiko baitzaio horrela.

Euskadiko Prezioen Batzordea egituratzen duen abuztuaren 30eko 230/1988 Dekretua, 1988ko irailaren 21eko Agindua, eta orokorrean -eta bereziki- aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aztertu ondoren, Euskadiko Prezioen Batzordeak, gehiengoz, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Auto-taxian hiri-garraioa egiteko Lezoko, Oiartzungo eta Errenteriako Udalei dagozkien 2009rako tarifak onartzea. Hona hemen prezioak:

I. tarifa (*)

– Abisaria (**)	4,8392 euro.
– Egindako km	1,0284 euro.
– Itxaronaldia, orduko	20,0196 euro.

(*) Tarifa hau laneguneta n, 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.

(**) Abisaria: 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

II. tarifa (*)

– Abisaria (**)	5,7124 euro.
– Egindako km	1,6142 euro.
– Itxaronaldia, orduko	21,7554 euro.

(*) Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 07:00etara, baita igandetan eta Autonomia Erkidegoko eta Tokiko araudian jaiegun diren egunetan ere, 07:00etatik 22:00etara. Larunbatetan aplikatulo da.

(**) Abisaria: 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

Auto-taxi zerbitzuaren hiri-barruko tarifak taxiaren lizentziari dagokion udalerriaren lurralde-eremuan aplikatuko dira.

Bigarrena.– Erabaki honek 2009ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Ebazpen honek administrazioko bidea amaitzen du; beraz, bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabete biko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 11.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.

ámbito comarcal, se busca un equilibrio comarcal entre la oferta y la demanda. Básicamente se busca el desarrollo del sector y su potenciación (número de licencias, organización del servicio, unificación de tarifas y criterios de aplicación) lo que redundará en la prestación de un mejor servicio al usuario.

Visto el Decreto 230/1988, de 30 de agosto, por el que se reestructura la Comisión de Precios de Euskadi y la Orden de 21 de septiembre de 1988, así como las demás disposiciones de carácter general y particular aplicables al caso, la Comisión de Precios de Euskadi, por mayoría de los miembros presentes acuerda:

Primero.– Autorizar las tarifas del servicio urbano de auto-taxi correspondientes a los Ayuntamientos de Lezo, Oiartzun y Errenteria para el año 2009, que a continuación se indican:

Tarifa I (*)

– Bajada de bandera (**)	4,8392 euros.
– Km recorrido	1,0284 euros.
– Hora de espera	20,0196 euros.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22:00 horas.

(**) Bajada de bandera: incluye 1,5 kilómetros de recorrido o 5 minutos de espera.

Tarifa II (*)

– Bajada de bandera (**)	5,7124 euros.
– Km recorrido	1,6142 euros.
– Hora de espera	21,7554 euros.

(*) Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados.

(**) Bajada de bandera: incluye 1,5 kilómetros de recorrido o 5 minutos de espera.

Las tarifas urbanas del servicio de auto-taxi se aplicarán en el ámbito territorial de cada municipio en el que este residenciada la correspondiente licencia del taxi.

Segundo.– El presente Acuerdo entrará en vigor el 1 de enero de 2009.

Contra esta Resolución que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de esta jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2008.

El Presidente de la Comisión de Precios de Euskadi,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.